

ERABAKIA, 2025EKO URRIAREN 22KOA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, ERASMUS+ PROGRAMARI LOTUTA EZ DAUDEN HERRIALDEETAKO UNIBERTSITATE BAZKIDEETAKO LANGILEEK, IRAKASKUNTZAKO ETA/EDO FORMAKUNTZAKO HELBURUEKIN, EHU UNIBERTSITATEKO EGONALDIETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK ONESTEN DITUENA (2023-24-25KO PROIEKTUAK).

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordearen deialdi honek Erasmus+ programari lotuta ez dauden herrialdeetako unibertsitate bazkideetako langileek EHUn, irakaskuntzako eta/edo formakuntzako helburuekin, Erasmus+ truke programan parte har dezaten laguntzak esleitzeko prozedura eta programa hori garatzeko baldintzak ezartzen ditu.

Oraingo honetan, 2023-24-25ko proiektuen barruan, Erasmus+ programari lotuta ez dauden herrialdeetako langileek Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) astebeteko egonaldiak egin ditzaten esleipenak egitea da deialdi honen xedea, Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) bitartez ezarritako jarraibideekin bat etorritik.

Kontuan hartuta 2023-24-25 Erasmus+ KA171 eta nazioarteko-KA 131 proiektuekin lotutako dirulaguntzako kontratuen europar funtsetatik datorren kreditua dagoela, eta ditudan eskumenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: India, Singapur, Japonia, Ukraina, Peru, Mexiko, Aljeria, Hego Afrika, Kenya, Tanzania eta Senegal-eko unibertsitate bazkideetako kideek, irakaskuntzako eta/edo prestakuntza helburuekin, EHUn astebeteko trukeak egiteko Erasmus+ mugikortasuneko deialdiaren oinarriak onestea eta argitaratzea.

Hau da 2023ko KA171 / Nazioarteko-KA131 proiektuetarako egiten den laugarren deialdia, 2024ko KA171 / Nazioarteko-KA131 proiektuetarako egiten den bigarren deialdia eta 2025ko KA171 / Nazioarteko-KA131 proiektuetarako egiten den lehenengo deialdia.

Bigarrena: Esleitutako plaza kopurua bat etorriko da 1. eranskinean argitaratzen den zerrendarekin. Jasotako eskaeren eta eskura dagoen finantzaketaren arabera, 5. puntuan aurreikusitako Hautaketa Batzordeak 1. eranskineko plazak gehitu edo aldatu ahal izango ditu, betiere eskatzaile batek ere kalterik ez badu.

Hirugarrena: Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunak 2023-24-25 Erasmus+ KA171/Nazioarteko-KA131 proiektuetan erabilgarri dagoen finantzaketaren kontura gauzatuko dira.

Hala ere, Erasmus+ KA171/KA131 proiektuak ahalik eta gehien gauzatzeko, proiektu horien kudeaketaz arduratzen diren pertsonak, Nazioartekotze zuzendariaren oniritziarekin, deialdi honen azken ebazpenaren ondorioz sortutako itzarote-zerrendan agertzen diren pertsonen eskaini ahal izango diete beren mugikortasuna burutzeko aukera beste proiektu batzuen kargura, betiere aurreikusitako mugikortasunak bat badatoz egozten zaizkien amaierako proiektuarekin. Bide hori erabiltzeko, onuradunei behin betiko proiektu finantzatzailearen arabera dagozkien zenbatekoak eguneratuko zaizkie.

Laugarrena: Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, aintzat harturik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea. Hala ere, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari, hilabeteko epean, aintzat harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua.

OINARRIAK:

1. Deialdiaren xedea.....	3
2. Parte hartzeko baldintzak.....	5
2.1. Langileen ezaugarriak	5
2.2. Inklusioa	6
2.3. "COIL / Virtual Exchange" formatuan egindako proiektuak bultzatzen dituzten ekimenak	6
2.4. Egonaldiaren iraupena eta epealdia	7
2.5. Helmugak	7
3. Finantzaketa.....	7
4. Eskaera egiteko modua	8
4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa	8
4.2. Eskaera aurkezteko epea eta modua.....	9
4.3. Eskaera zuzentzea eta hobetzea	9
5. Hautapen prozedura.....	9
5.1 Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda	11
5.2 Behin betiko esleipena	11
5.3 Egutegia	12
6. Parte hartzeko konpromisoak.....	12
6.1. Egonaldiaren aurretik	12
6.2. Egonaldiaren ondoren.....	13
7. Dirulaguntza ordaintzea	14
8. Aldaketak eta uko egitea	14
9. Ez-betetzeak eta itzulketak	15
10. Deialdi honi buruzko informazioa eta kontaktuak bilatzen laguntzea.....	15
Eranskinen zerrenda	16

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da India, Singapur, Japonia, Ukraina, Peru, Mexiko, Aljeria, Hego Afrika, Kenya, Tanzania eta Senegal-eko unibertsitate bazkideetako kideei laguntza ekonomikoak ematea, EHUn, irakaskuntzako eta/edo prestakuntza helburuekin, astebeteko Erasmus+ trukeak egiteko.

Truke horiek egiteko, ezinbestekoa izango da EHU eta interesdunaren jatorriko unibertsitatearen artean erakunde arteko Erasmus+ KA171 / Nazioarteko-KA131 hitzarmen bat sinatzea.

Hau da 2023ko KA171 / Nazioarteko-KA131 proiektuetarako egiten den laugarren deialdia, 2024ko KA171 / Nazioarteko-KA131 proiektuetarako egiten den bigarren

deialdia eta 2025ko RA171 / Nazioarteko-RA131 proiektuetarako egiten den lehenengo deialdia.

Astebeteko egonaldiek ondorengo helburuetako bat izan dezakete: a) irakaskuntza, b) prestakuntza, c) irakaskuntzako eta formakuntzako mugikortasun konbinatua.

a) Irakaskuntzarako mugikortasuna

Egonaldian emango den irakaskuntza EHUn graduako edo graduondoko titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikasketa programa batekoa izan behar da, eta aldez aurretik erakunde bien artean hitzartutako Irakaskuntzarako Mugikortasun Akordio batean jaso beharko da (3.1. Eranskina).

Ondorengo helburuak ditu ekintza horrek:

- Parte hartzen duten langileei arlo profesionalean eta pertsonalean garatzeko aukerak ematea.
- Esperientzien trukea eta irakaskuntzako metodologietan berrikuntza sustatzea.
- Unibertsitateak eskaintzen dituzten ikastaroen irismena eta edukia hedatzera eta aberastera bultzatzea.
- Hirugarren hizkuntza batean hizkuntza trebetasuna hobetzea.
- Mugikortasuneko ekintzetan parte hartu ezin duten helmugako unibertsitateetako ikasleei beste herrialde batzuetako irakasleen jakintzaz aberasteko eta, hala badagokio, eskola magistralak/praktikoak atzerriko hizkuntza batean jasotzeko aukera ematea.

Irakaskuntzako jarduerak astean gutxienez zortzi (8) eskola ordu bete beharko ditu.

b) Prestakuntzarako mugikortasuna

Prestakuntza jarduerak erakunde bien artean aldez aurretik hitzartutako Prestakuntzarako Mugikortasun Akordio batean (3.2. eranskina) jaso beharko dira.

Mugikortasun horren helburu nagusia da EHUn egonaldi laburrak egitea; hainbat izen har dezake egonaldiak (zerbitzu eginkizun laburra, profesionalen behaketa, ikasketa bisita, *Staff Week* batean parte hartzea...), eta beste ekimen mota batzuk ere har ditzake barne, baldin eta helmugan egin beharreko laneko planean behar bezala justifikatzen badira.

Honako hauek dira ekintza horren helburu zehatzak:

- Lan bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko aukera ematea.
- Hirugarren hizkuntza batean hizkuntza trebetasuna hobetzea.
- Unibertsitateko komunitatea osatzen duten kolektibo guztien nazioartekotzea sustatzea.
- Jardunbide egokiak beha daitezen laguntzea, erakunde bazkideen lan moduei eta lan inguruneei dagokienez.

- Onuradunaren lanpostuak behar dituen gaitasunak hobetzea.
- Unibertsitate bazkideekiko harremanak indartzea.

c) **Irakaskuntza eta prestakuntzarako mugikortasun konbinatua**

Prestakuntza eta irakaskuntza konbinatuko dituen mugikortasuna ere egin daiteke. Modalitate horretan, nahitaezkoa izango da gutxienez lau (4) eskola ordu ematea, EHU graduako edo graduondoko titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikasketa programa batean.

Irakaskuntzakoa (3.1. eranskina) izango da mugikortasun akordioa, eta adierazi beharko da astean gutxienez lau (4) eskola ordu emango dituela partehartzaileak.

Mugikortasunaren barruan, lotutako goi mailako hezkuntza erakundea garatzeko prestakuntza irakastea ere sar daiteke.

GARRANTZITSUA: Deialdi honen helburua da **irakaskuntza** edo **prestakuntza** eman edo jaso dadin bultzatzea, irakaskuntzako mugikortasun batetik abiatuta, jarduera horiek konbinatzeko aukerarekin.

Erasmus+ ekintza horren barruan, ez dira onargarriak ikerkuntzako jarduerak, eta ez dute justifikatzen ez egonaldia egiteko interesa, ezta helmugan gauzatu beharreko jarduerak ere. Ikerkuntzarako irakaskuntza eta prestakuntzako jarduerak, ordea, onargarriak dira.

Mugikortasun horietan ez da sartzen kongresuetara, hitzaldietara edo helmugako erakundearekin hitzartutako laneko plan zehatz baten arabera (*Mobility Agreement*) antolatzen ez den beste gertaera orokor edo jardueraren batera joatea. Bosgarren puntuan aurreikusten den Hautaketa Batzordeak ebaluatuko du proposamena, eta deialdiaren xedearekin bat datorren edo ez erabakiko du.

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Langileen ezaugarriak

1. Eskatzaileak zerbitzu harremana izan beharko du jatorriko bere unibertsitatearekin, dela funtzionario moduan dela kontratudun langile moduan, eta jardunean egon beharko da, eskaera egiterako unean zein mugikortasuna egiterako unean.
2. Eskatzaileak eskuratu nahi duen plazarako eskatzen den profila duela egiaztatu beharko du, Erabaki honen 1. eranskinean adierazitakoari jarraikiz.
3. Jatorriko eta harrerako erakundeek irakaskuntzako eta/edo prestakuntzako behin betiko programa (3.1. edo 3.2. eranskina) sinatu beharko dute, eskatzaileak mugikortasuna egin baino lehen aurkeztu beharko duena.
4. Eskatzaile orok izan beharko du EHU hitzartutako mugikortasun plana betetzeko behar adinako ingeleseko, gaztelerako edo euskarako ezagutza

5. Irakaskuntzarako eta/edo prestakuntzarako Erasmus+ mugikortasuna parte hartzen duten erakundeen arteko Erasmus+ hitzarmenetan oinarrituta dago.

Mugikortasun egin baino lehen EHUren eta eskatzailearen jatorriko unibertsitatearen arteko Erasmus+ aldebiko akordiorik ez badago, ezingo da mugikortasun hori egin, ezta diru-laguntzarik jaso.

1. eranskinean daude jasota EHUrekin hitzarmena sinatuta duten helmuguen zerrenda eta oraindik hitzarmenik ez dutenena.

Laguntzak eman ondoren, hitzarmenik ez dutenen kasuan, erabat debekatuta egongo da inolako gasturik egitea, hitzarmen hori sinatu izanaren idatzizko jakinarazpena jaso arte.

2.2. Inklusioa

SEPIEk desgaitasuna edo bestelako baldintza fisikoak, mentalak edo osasun baldintzak dituzten langileei laguntza gehigarriak emateko prozedura bat ezartzen du; laguntza horiek oro har ezarritakoak baino handiagoak izan daitezke.

Zurea era horretako kasua izan daitekeela uste baduzu, jar zaitez harremanetan pc.international@ehu.eus helbide elektronikora idatzita, ze laguntza osagarri jaso dezakezun araka dezagun.

EHUk eta haren bazkide diren unibertsitateek profil hori duten eskatzaileei eta partehartzaileei laguntzeko asmo irmoa dute, bai deialdian, bai mugikortasunak egin baino lehen, mugikortasunak egiten dituztenean zein ondoren.

2.3. "COIL / Virtual Exchange" formatuan egindako proiektuak bultzatzen dituzten ekimenak

Deialdi horretan, bereziki hartuko dira kontuan graduako edo graduondoko ikasketetako ikasgai jakin batean "COIL / Virtual Exchange" formatuko proiektu bat abian jartzea planteatzen duten mugikortasuneko proposamenak.

"COIL / Virtual Exchange" formatuko egitasmoak dira mugikortasuna egiteko interesa duen irakaslearen ikasleek eta hura hartzeko prest dagoen EHUko irakaslearen ikasleek elkarrekin egiten duten jarduerak edo proiektuak.

Helburua izan beharko litzateke ikasleei ikaskuntzarako eta lankidetzan eta taldean lan egiteko online bidezko trukea eskaintzea, mugikortasuna egiteko interesa duen eta hura hartzeko prest dagoen EHUko irakasleak gainbegiratuta.

Mugikortasunak proiektua diseinatzeko balio lezake. Aproposena izango litzateke mugikortasuna proiektuaren parte izatea eta, beraz, proiektua mugikortasuna egin baino lehen diseinatzea eta abiaraztea, eta irakasleek bidaia aprobetxatzea jardueran parte hartuko duten ikasleei helmugan eskolak emateko.

2.4. Egonaldiaren iraupena eta epealdia

Laguntzak esleitzeko azken erabakia argitaratu ondoren egin beharko da mugikortasuna (2026eko urtarrilean argitaratuko dela aurreikusten da).

2026eko abenduaren 31rako amaituta egon beharko da EHUko egonaldia. Edonola ere, haien mugikortasunen datak **2026ko abuztua** baino lehen hitzartzera animatzen ditugu interesdunak.

Abuztuaz, Eguberriez eta Pazkoa asteez gain, EHUn egiten diren egonaldietarako balio gabetuta gelditzen dira ondorengo jaiegunak, astelehenetik ostiralerako egunetan egokitzen badira: maiatzak 1, uztailak 25, urriak 12, azaroak 1, eta abenduak 6 eta 8.

Bost egun baliodunekoa izango da helmugako egonaldiaren iraupena, astelehenetik ostiralera, bidaia egunak kontatu gabe.

2.5. Helmugak

Deialdi honen 1. eranskinean agertzen dira EHUrekin Erasmus+ erakunde arteko hitzarmena duten erakundeak eta plaza bakoitzerako bete beharreko eskakizunak.

Mugikortasuna egin aurretik bi unibertsitateen artean erakunde arteko Erasmus+ hitzarmenik ez badago, ezinezkoa izango da gasturik egitea eta inola ere ezingo da mugikortasuna egin.

Erasmus+ hitzarmena sinatzen den unean, EHUren Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak posta elektronikoz jakinaraziko die oraindik erakunde arteko hitzarmenik ez duen helmuga esleitu zaien pertsonen zein egunetik aurrera has daitezkeen haien mugikortasunak antolatzen.

Jakinarazpen hori egiten ez bada, erakunde arteko hitzarmena sinatzeko negoziazioek ez dutela aurrera egin ulertuko da, eta pertsona horiek ezingo dute egin haien mugikortasuna deialdi honen barruan. Erakunde arteko hitzarmenik gabeko helmugak aukeratzen dituzten pertsonak jakin behar dute esleitu zaien mugikortasuna ezin egin ahal izateko arriskua dagoela.

3. Finantzaketa

SEPIEk adierazitako finantzazioko arauen arabera kalkulatuko dira deialdi honetan jasotzen diren finantza laguntzak.

Langileek Europako laguntza bat jasoko dute haien bidaia gastuak eta Espainiako egonaldiko mantenu gastuak ordaintzen laguntzeko. Bi kontzeptutan banatzen da laguntza hori:

- a) **Bidaiarako laguntza** kalkulatzeko, kontuan hartzen da lantokiaren eta dagokion jarduera garatuko den lekuaren arteko distantzia, EACEA agentziak erabiltzaileen eskura jartzen duen tresna informatikoaren bitartez kalkulatu dena: <https://erasmus-plus.ec.europa.eu/resources-and-tools/distance-calculator>

Bidaiaren distantzia	Kopurua (parte hartzaileko)
500-1.999 km	309€
2.000-2.999 km	395€
3.000-3.999 km	580€
4.000 eta 7.999 km artean	1.188€
8.000 km edo gehiago	1.735€

- b) **Mantenu gastuetarako laguntza** Europar Batasunak eman duen laguntza indibiduala da, eguneko 170 eurokoa, astelehenetik ostiralera.

Horrez gain, Erasmus+ programak jarduerak hasi aurreko egun baterako joaneko bidaia egun bat eta ondorengo itzulerako bidaia egun bat finantzatzeko aukera ematen du, agiri bidez frogatzen bada (hegazkineko txartela).

SEPIEk desgaitasuna edo bestelako baldintza fisikoak, mentalak edo osasun baldintzak dituzten langileei laguntza gehigarriak emateko prozedura bat ezartzen du; laguntza horiek oro har ezarritakoak baino handiagoak izan daitezke. Ikus deialdi honetako 2.2. puntua.

4. Eskaera egiteko modua

4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskariak indibidualak izango dira. Pertsona batek eskaera bakarra egin ahal izango du.

Webgunean erabaki honekin batera argitaratuta dagoen eredu normalizatuan osatu beharko da eskaera bakoitza.

Zuzenketak egiteko epea igaro ondoren osatu gabe dauden eta eskatzaileak 1. eranskinean plaza bakoitzerako eskatzen den profila betetzen duela egiaztatzen ez duten eskaerak ez dira kontuan hartuko.

Ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Eskaera orria, behar bezala beteta eta eskatzaileak sinatuta (2.1. eranskina Irakaskuntzarako eta Irakaskuntza + Prestakuntzarako, eta 2.2. eranskina Prestakuntzarako).
2. Behin behineko lan programa (3.1. Eranskina Irakaskuntzarako eta Irakaskuntza + Prestakuntzarako, eta 3.2. Eranskina Prestakuntzarako), eskatzaileak sinatuta.
3. EHUn interesdunaren homologoa den pertsonaren onespena interesdunak aurkeztutako laneko planerako Proposamenari (4. eranskina).

4. Eskatzailearen Curriculum Vitae, ingelesez (gazteleraz, Hego Amerikako eskatzaileen kasuan).
5. Eskatzaileak jatorriko unibertsitatearekin duen lan harremana egiaztatzen duen agiria.

4.2. Eskaera aurkezteko epea eta modua

Eskaerak egiteko epea **2025eko azaroaren 23ra arte egongo da zabalik**, 23:59ak arte (egun hori barne).

Posta elektronikoz bidali beharko da eskaera, helbide honetara: pc.international@ehu.eus.

Eskatzaile guztiek jasoko dute haien eskaera hartu izanaren agiria.

4.3. Eskaera zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikulua edo berariazko legeria aplikagarriak exijitzen dituzten baldintzak, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari, akatsak zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, bertan behera geratuko dela bere eskaera, dagokion erabakia eman ondoren; erabaki hori Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusten denari jarraikiz idatzi beharko da.

Akatsa zuzentzeko errekerimendua jasotzen duten pertsonak posta elektronikoz aurkeztu beharko dute dokumentazioa, helbide elektroniko honen bitartez: pc.international@ehu.eus.

5. Hautapen prozedura

Horretarako apropos sortutako Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu parte hartzeko onartutako eskaerak; ondorengo pertsonak osatuta egongo da batzorde hori: Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak, Nazioarteko Harremanetarako zerbitzuburuak eta teknikari batek. Azken horrek batzordeko idazkari lanak egingo ditu, eta hitza izango du, baina ez botorik.

Aldi berean, EHUK langileengandik jasotako hautagaitzei buruzko balorazioa eskatuko die eskatzaileen jatorriko unibertsitateei.

Ondo osatuta dauden eta EHUn onartutako lan programa bat aurkezten duten eskaerak bakarrik ebaluatuko dira eta, betiere, egokiak direnak eta deialdian adierazten diren xedeak eta helburuak dituztenak.

Lehiaketa bidez esleituko dira mugikortasunak, jasotzen diren eskeren balorazio kualitatiboan oinarrituta, jarraian azaltzen den moduan:

1. EHUren Hautaketa Batzordeak eskatzailearen CVari eta behin-behineko Mugikortasun Akordioan proposatutako laneko planari buruz egiten duen balorazioa, 1etik 10era.
2. Jatorriko unibertsitateak eskatzailearen CVari eta behin-behineko Mugikortasun Akordioan proposatutako laneko planaren inguruan bidaltzen duen balorazioa, 1etik 5era.

Eskatzaile bakoitzak gutxienez 11 puntu eskuratu beharko ditu eskaintzen diren plazetarako hautagai izateko.

Ondorengo taularen arabera egingo dira balorazioak:

Balorazio kualitatiboa	EHU (puntuazioa)	Unibertsitate bazkidea (puntuazioa)
Bikaina	9tik 10era	5
Oso ona	7tik 8ra	4
Ona	6	3
Nahikoa	5	2
Eskasa	1tik 4ra	1
Gutxiegia	0	0

CVari dagokionez, eskatzaileak irakaskuntzan, ikerkuntzan, argitalpenak egiten eta beste hainbat arlotan duen esperientzia baloratuko da.

Duen metodologiaren, bideragarritasunaren, irakaskuntzaren eta/edo hezkuntzaren arloan dakarren berrikuntzaren eta curriculum garatzeko duen balioaren arabera baloratuko da Mugikortasun Akordioa. Kontuan izango da helmugako unibertsitatean zein jatorriko mugikortasunaren ondoren ze garrantzi, inpaktu eta balio erantsi izatea espero den ere. Bereziki hartuko dira kontuan gradu edo graduondoko ikasketetako ikasgai jakin batean "COIL / Virtual Exchange" formatuko proiektu bat abian jartzea planteatzen duten mugikortasuneko proposamenak, deialdi honen Oinarrietako 2.3. puntuan adierazi den bezala.

Plaza baterako eskatzaile bakarra badago eta pertsona hori EHUK zein jatorrizko unibertsitateak onetsi behar badute, EHU eta jatorrizko unibertsitatea ez dira behartuta egongo puntuazioa argudiatzera, eta gehieneko puntuazioa eman ahal izango diote.

Jarraian, berdinketaren bat gertatzen bada:

1. Lehenik eta behin, Erasmus+ programako irakaskuntzako eta/edo prestakuntzako mugikortasunetan lehen aldiz parte hartzen duten pertsonen eskaerak hartuko dira kontuan.

2. Ondoren, azkeneko bost ikasturtetan Erasmus+ programarekin irakaskuntzarako eta/edo prestakuntzarako mugikortasun¹ gutxien egin duten pertsonen eskaerak baloratuko dira.
3. Berdinketa ez bada hautsi, haren jatorriko unibertsitatean lanean egun gehien egin duenak eskuratuko du plaza. Kasu horretan, Nazioarteko Harremanen Bulegoak berdinketa egoera horretan dauden eskatzaileei bakarrik eskatuko die datu hori.

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, ikusita batzordeak lehenetsitako eskariak, batzordeko kideek emandako puntuen eta unibertsitate bazkideek igorritako puntuen arabera, agindua emango du Nazioarteko Harremanen webgunean argitaratzeko behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrenda, bai eta itxaron zerrenda ere, izango duen erabakia. Horrez gain, jakinarazpen indibiduala bidaliko zaie interesdunei eskarian adierazitako helbide elektronikora.

5.1 Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda

Behin plaza esleitu ondoren, 10 egun balioduneko epea emango zaio interesdunari mugikortasuna onartu (9. eranskina) edo hari uko egin diezaion (10. eranskina); horretarako, pc.international@ehu.eus helbide elektronikora bidali beharko du inprimakia.

Interesdunak ez badu 9. eranskina edo 10. eranskina ezarritako epearen barruan aurkezten, mugikortasunari uko eginen diozula ulertuko dugu.

Nazioarteko Harremanen arloaren webgunean argitaratuko dira behin betiko zerrendak, eta posta elektronikoko bidez emango zaie horien berri deialdi honetan parte hartzen duten unibertsitateei.

Hautatuak izan ez diren interesdunen erreserba zerrenda ere Nazioarteko Harremanen arloaren webgunean argitaratuko da eta, esleipendunen batek mugikortasunari uko egingo balio, posta elektronikoko bitartez jarriko litzateke harremanetan bulegoa erreserba zerrendako pertsonekin, zerrenda horretan ezarritako ordenari jarraituz.

5.2 Behin betiko esleipena

Mugikortasuna onartzeko edo mugikortasunari uko egiteko 10 egun balioduneko epea igaro ondoren, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, bai eta itxaron zerrenda ere izango duen erabakia.

¹ 2018/19 ikasturtetik aurrera.

5.3 Egutegia

1.Eskaerak aurkezteko epealdia hasiko da	2025eko urriak 22
2.Eskaerak aurkezteko epealdia amaituko da	2025eko azaroak 23 (23:59ak arte)
3.Eskaeren behin behineko zerrendak argitaratuko dira eta akatsak zuzentzeko epea hasi	2025eko azaroak 25
4.Hautaketa prozesuan parte hartuko duten eskaeren behin betiko zerrenda argitaratuko da.	2025eko abenduak 12
5.Onartutako, baztertutako eta erreserba zerrendan gelditzen direnen behin behineko zerrenda argitaratuko da, eta emandako laguntza onartzeko edo hari uko egiteko epealdia hasiko da	2025eko abenduak 19
6.Hautatutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Behin betiko erreserba zerrenda argitaratuko da.	2026ko urtarrilak 9

6. Parte hartzeko konpromisoak

Deialdian hautatutako pertsonen konpromiso hauek hartuko dituzte:

6.1. Egonaldiaren aurretik

Mugikortasuna hasi baino gutxienez 15 egun lehenago, ondorengo agiriak bidali beharko dituzte pc.international@ehu.eus helbide elektronikora:

1. **Behin betiko** lan programa, jatorrizko erakundean eta interesdunak sinatuta (3.1. edo 3.2. eranskina).
2. Pasaportearen kopia
3. Hegazkin txartelaren edota aukeratutako garraiobidearen txartelaren kopia.
4. Bidaia aseguruia kontratatu izanaren egiaztatzea; ingelesez edo gaztelaraz deskribatu behar dira aseguruaren estaldurak, baita ordaindu izana ere.

Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguruia izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatik (COVID-19a barne) edo istripuagatik asistentzia medikoa eta farmazeutikoa, aberriratzea eta osasun lekualdaketa. Bidaia aseguruia kontratatzea nahitaezkoa da Erasmus + programan, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko.

5. Banku kontuaren kopia, Espainiatik nazioarteko transferentziak egiteko informazio garrantzitsu guztia adierazita, bai eta banketxearen posta helbidea eta eskatzailearen bizitokiari dagokion posta helbidea ere.

Goian zerrendatutako dokumentazioa entregatu ondoren, Nazioarteko Harremanen Bulegoak:

- **Mugikortasunaren Dirulaguntza Hitzarmena osatzen lagunduko dio partehartzaileari** (sinadura digital ofizialarekin sinatu beharko du eskatzaileak, edo 7. puntuan adierazten den posta helbidera bidali beharko du jatorrizko agiria, eskuz sinatuta), eta
- **Egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren eredua emango dio, Egonaldia egin ondorengo inkesta egiteko esteka, bai eta egonaldia egin ondoren jatorriko ikastegi edo zerbitzuarekin izan beharreko bilerako akta egiteko eredua ere.**

Ez dira finantzatuko aseguratutako gabe edo inplikaturik gabe edo inplikaturik gabe edo inplikaturik gabe edo inplikaturik gabe edo inplikaturik gabe bere helmugara abiatu baino lehen *Mobility Agreement* eta/edo Dirulaguntza Hitzarmenik gabe egiten diren mugikortasunak.

6.2. Egonaldiaren ondoren

Likidazioa tramitatzeke, egonaldia egin eta hilabete bateko epearen barruan, honako agiriak aurkeztu beharko dira, pc.international@ehu.eus helbide elektronikora bidalita:

1. EBren GALDETEGIA (EU Survey). Online bete beharko da hala egiteko gonbita jaso eta 30 egun naturaleko epearen barruan. Betetzen ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak.
2. Egonaldiaren amaierako ziurtagiria (6. eranskina). Bertan zehaztuko da zein egunetan egin den jarduera, eta ziurtagiriaren data izan beharko da egonaldiaren amaierako data bera edo ondorengo. Ziurtagiria originala izan behar da, zirriborrorik eta zuzenketarik gabe, eta helburuko erakundeko harrera ataleko zuzendariak sinatu eta zigilatu behar du.
3. EHUren azken inkesta: Parte-hartzaileak EHUK mugikortasunari buruz egindako azken inkestari erantzun beharko dio.
<https://www.ehu.eus/es/web/forms/shared/-/form/54315158>
4. Egonaldia egin ondoren jatorriko ikastegi edo zerbitzuan antolatu beharreko bilerako aktaren kopia (8. eranskina).
5. Testigantza: Borondatez, parte hartzaileek beren esperientziaren testigantza utz dezakete hautagai berriak Erasmus+ deialdietan izena ematera animatzeko.
<https://www.ehu.eus/es/web/forms/shared/-/form/53001664>

7. Dirulaguntza ordaintzea

Bi (2) alditan ordainduko da laguntza: dirulaguntza hitzarmenean adierazitako moduan:

1. Mugikortasuna egin baino lehen: Europako laguntzaren gehieneko zenbatekoaren % 70eko ordainketa, eta
2. Mugikortasuna egin ondoren: gainerako zenbatekoari dagokion ordainketa.

Bi ordainketa horiek kudeatzeko izapideak abiarazteko, ezinbesteko baldintza da beharrezko dokumentazioa **(6. Atala)** aurkeztea, helbide elektroniko honen bitartez:

pc.international@ehu.eus

Erasmus + Mugikortasunerako Deialdia, programako bazkide ez diren herrialdeak
Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa

Ignacio Maria Ibarrola ikastegia

Elhuyar plaza 1

20018 Donostia, Gipuzkoa

Espainia

8. Aldaketak eta uko egitea

Egonaldiak baimendutako datetan egin beharko dira. Aurreikusitako datekin zerikusia duen aldaketaren bat eginez gero, posta elektroniko bidez jakinarazi beharko da (pc.international@ehu.eus), betiere mugikortasuna egiteko baimendutako hasiera data baino lehen.

pc.international@ehu.eus helbide elektronikora bidali beharko da plaza bati uko egiteko agiria (9. eranskina).

Parte hartzen duten langileak ezarritako egunean hasi beharko dira EHUn; hala ez eginez gero, esleipendunak mugikortasunari uko egiten diola ulertuko da. Berehala eman beharko da inguruabar horren berri goian adierazitako helbide elektronikora idatzita; izan ere, esleipendunak jakinarazpen hori egiten ez badu, modalitate horretako mugikortasuneko hurrengo deialdiko hautapen prozesutik kanpo geldituko da.

Mugikortasuna –behin hasita– norbere borondatez utziz gero ere goian adierazten den helbide elektronikora idatzita jakinarazi beharko da. Fede txarrekotzat joko da jakinarazi gabe eta laguntzak eskuratu ondoren mugikortasuna bertan behera lagatzea. Nolanahi ere, mugikortasuna baimenik gabe bertan behera uzten duten langileek itzuli egin beharko dituzte eskuratutako laguntzak.

9. Ez-betetzeak eta itzulketak

Deialdiaren oinarriak edo epeak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo manipulatu badira, ukatu, eten edo baliogabetu ahal izango da emandako dirulaguntza, eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

EHUren Nazioarteko Harremanen Bulegoak mugikortasuna deialdiaren xedearen izpirituarekin bat etorritik egin dela egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eska diezaieke onuradunei eta jatorriko unibertsitatei.

Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua kasuren batean badaude,

edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharra ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, bat etorritik abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta ezartzen diren haien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

10. Deialdi honi buruzko informazioa eta kontaktuak bilatzen laguntzea

Ondorengo webgunean argitaratuko ditu EHUK deialdi honetan ematen diren urratsak:

<https://www.ehu.eus/en/web/nazioarteko-harremanak/en-erasmus-2021-2027-ka171-and-ka131-international->

EHUn kontaktuak bilatzeko laguntza behar izanez gero, interesdunak EHUn Nazioarteko Harremanen Bulegoarekin jar daitezke harremanetan, pc.international@ehu.eus helbide elektronikora idatzita edo 943 015738 telefono zenbakira deituta.

EHUn haiei harrera egiteko prest dauden kideko homologoak izan daitezkeenak identifikatzeko laguntza behar izanez gero, EHUn Nazioarteko Harremanen Bulegoarekin harremanetan jarri beharko dira interesdunak izen emate epea amaitu baino lehen.

Leioan, 2025eko urriaren 22an.

Miren Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordea

Eranskinen zerrenda

- | | |
|-----------------------|---|
| 1. eranskina | Mugikortasunetarako plazen zerrenda |
| 2. eranskina | Irakaskuntzako mugikortasunerako eskaera orria
<i>(baliagarria Teaching + Training mugikortasun konbinatueterako ere)</i> |
| 2.2 eranskina | Prestakuntzako mugikortasunetarako eskaera orria |
| 3.1. eranskina | Mobility Agreement for Teaching (IRAKASKUNTZA)
<i>(baliagarria Teaching + Training mugikortasun konbinatueterako ere)</i> |
| 3.2. eranskina | Mobility Agreement for Training (PRESTAKUNTZA) |
| 4. eranskina | EHUn interesdunaren homologoa den pertsonaren onspena interesdunak aurkeztutako laneko planerako proposamenari. |
| 6. eranskina | Egonaldiaren amaierako ziurtagiria |
| 8. eranskina | Egonaldia egin ondorengo batzarraren akta |
| 9. eranskina | Plaza onartzeko orria |
| 10. eranskina | Plazari uko egiteko orria |